



“Euskal Eurohiriaren ingurumen eguna” (2005-2009 memoria)



1 . SARRERA

Airetik ikusita, 600.000 biztanlez osatutako aglomerazio baten itxura dauka Euskal Eurohiriak. Baionatik Donostiara doazen 50 kilometroetan banatzen dira biztanleok, Pirinioen oinetaraino hedatzen den espazio zabal eta erakargarri batean.



Egoera hori ikusita, duela hamarkada bat elkartzen hasi ziren mugaz gaindiko erakundeak bizi-espazio berri hau indartzeko, eta "Baiona-Donostia Euskal Eurohiria" sortu zen horrela. Gauza asko daude jokoan, erro berberak izan arren bilakaera historiko desberdinak izan dituen eta denbora luzean bi zatitan banatuta egon den lurralde-eremu hau modu orekatuan garatzea baita helburua hemen.

Hizkuntzak eta kulturak oraindik ere batzuetan oztopo izaten jarraitzen duten arren, jendea, ideiak eta proiektuak elkartzen dituen gai bateratzaile bat dago: **ingurumena eta iraunkortasuna kaltetzen ez duen garapena.**

Iraunkortasuna kaltetzen ez duen garapena lortzeko ingurumenaren gaineko kontzientziazioa eta hezkuntza ezinbesteko tresnak dira, gizartea kontzientziatzeko. Hortik abiatuta, aurrera egiteko beharra zegoela ikusi zen, eta ingurumenari buruzko biltzar bat antolatzea erabaki zen, Eurohiriko gazteak protagonistatzat hartuta.

Horrenbestez, hezkuntza izango zen biltzar horren ardatza eta helburu hauek izango zituen:

- ▶ Gure bizi-estiloarekin zerikusia duten ingurumen-arazoaren gaineko sentsibilitatea handitzea eta ingurumenarekin errespetuzko jarrera eta jokabideak hedatzea ikasleen artean.
- ▶ Kulturen arteko trukea bultzatzea, iritziak eztabaidatu eta trukitzea, lan-taldean aritzea eta informazio-teknologia berrien erabilera bultzatzea harreman pertsonalak eratzeke garaian.



- Eztabaidetan aterako zituzten ondorioak jasotzen dituen asmo-adierazpen moduko agiri bat adostea, eta ingurumena hobetzeko konpromiso eta proposamenak aurkeztea.





2005

2005 - Ingurumenari buruzko Gazteen Mugaz gaindiko I. biltzarra



Baiona-Donostia Euskal Eurohiriko Ingurumen Hezkuntza eta Trebakuntzari buruzko Mugaz gaindiko Lan Taldeak "Ingurumenari buruzko Gazteen Mugaz gaindiko I. Biltzarra" egitea erabaki zuen 2005eko maiatzean. Biltzar hori maiatzaren 10etik 12ra egin zen Irungo FICOBAn.

Haurrak eta gazteak hiru egunez elkartuko zituen biltzar bat egin nahi zen. Eurohiriko eta haren eragin-eremuko ikastetxe guztietako ikasleak elkartzeko asmoa zegoen. Urtean zehar ingurumenari buruzko ekimenak eta proiektuak lantzen eta ingurumen-hezkuntzako programak jorratzen zituzten ikastetxeetako lau ikasle joango ziren ikastetxe bakoitzeko, irakasle batek lagunduta. Guztira Lapurdiko eta Gipuzkoako 13 ikastetxeetako 11-16 urte bitarteko 316 ikaslek parte hartu zuten biltzarrean.

Aurkeztutako ingurumen-proiektuen artean hauek nabarmendu ziren:

- ▶ **%10 (ehuneko hamar).** Hirukide-Eskolapioak (Tolosa)
- ▶ **Miarritzeko itsasertz harritsua, urtarroetan zehar.** Jean Rostand (Miarritze)
- ▶ **Hiru natur inguruneraren arteko alderaketa.** Txingudi ikastola (Irun)
- ▶ **Bidebietako auzoan hobeto bizitzeko.** Bidebieta (Donostia)
- ▶ **Baratze ekologikoa eskolan.** Itzio BHI ikastetxea (Eibar)
- ▶ **Euskal Herriko meteorologia: Abbadia, Miarritze, Irandantz.** Irandantz (Hendaia)
- ▶ **Ur-zikloa eta uraren ibilbidea Irunen eta Hondarribian barrena, itsasora iritsi arte.** Txingudi ikastola BHI (Irun)
- ▶ **Pasaiako badia: ura eta haren ingurumena.** La Anunciata ikastetxea (Donostia)



- ▶ **Kalea = topaleku.** Laskorain ikastola (Tolosa)
- ▶ **Mugi gaitezen gure ingurunea babesteko.** Elhuyar (Hazparne)
- ▶ **Aniztasun biologikoan murgiltzen.** Salvatore Mitxelena (Zarautz)
- ▶ **Hondakinak eta herritar ekologikoak izatea ikastetxean.** Villa Fal (Miarritze)
- ▶ **Itsasoko ingurumena eta Gipuzkoako itsasertzeko ekosistema ezagutzea eta zaintzea.** Koldo Mitxelena (Erreterria)



Lehen biltzar hau jostagarria eta pedagogikoa izatea nahi genuen eta, lehenago esan dugun bezala, mugaz bi aldeetako ikasleei elkartzeko eta ingurumenarekin zerikusia duten gaien inguruko iritziak eztabaidatu eta trukatzeko aukera ematea zen helburu nagusia. Hala, gazteek **“Eurohiriko Gazteen Ingurumen Gutuna”** aurkeztu eta biltzarreko azken egunean onartu zuten. Gutun horretan parte-hartzaileek ingurumenarekin hartu zituzten konpromiso nagusiak jaso ziren, orduko egoera hobetzeko administrazioari zuzendutako proposamenekin batera.

Aukeratutako hamahiru ikastetxeek hartu zuten biltzarrean, baina Gipuzkoako eta Lapurdiko ikastetxe guztiei eman zitzaizen aukera gutuna osatzen laguntzeko. Biltzarreko web orrian zegoen inkesta bete behar zuten horretarako.

Mugaz gaindiko Agentziak, biltzarraren antolatzailea zen aldetik, gutuna argitaratzeko eta Gipuzkoako eta Lapurdiko ikastetxe guztietara bidaltzeko konpromisoa hartu zuen, ikasle guztiek hari buruz gogoeta eta eztabaida egin eta

geroago denek onartu zezaten.

Era berean, **maiatzaren 12a Euskal Eurohiriko Ingurumen Eguna** izango zela erabaki zen aho batez.



2006 Euskal Eurohiriko I. Ingurumen Eguna



2006ko maiatzaren 12an Euskal Eurohiriko I. Ingurumen Eguna ospatu zen Donostiako Aquarium-en, aurreko urtean antolatutako mugaz gaindiko biltzarrari jarraipena emateko. Ingurumen-hezkuntzan eta mugaz gaindiko lankidetzan interesa zuten pertsona eta erakunde guztiei zuzentzen zitzaien jardunaldia. Biltzarrean parte hartu zuten ikastetxez gain, administrazioako teknikariak, ingurumen-hezitzaileak, natur eskoletako arduradunak, ingurumen-hezkuntzako ikastetxeak eta gaian interesa izan zezaketen beste talde batzuk gonbidatu genituen. Ekitaldian aurreko urtean osatutako "Eurohiriko Gazteen Ingurumen Gutuna" berretsi zen.

Ekitaldi ugari egin ziren jardunaldian zehar: gonbidatutako taldeek gutuna sinatzea, itsasoari buruzko film dokumental bat eta Iñigo mago-ilusionistaren emanaldia. Arrainek behar duten ura hutsetik agerrarazi eta hegazti batentzako leku egokiena bilatzeaz gain, mezu garrantzitsua zabaldu zuen Iñigok: gure ingurumena salbatzeko magia baino zerbait gehiago beharko dugula.



2007 Euskal Eurohiriko II. Ingurumen Eguna



2007ko maiatzaren 18an "Euskal Eurohiriko II. Ingurumen Eguna" ospatu zen Hendaiako Sokoburu ikastetxean eta Donibane Lohizuneko Ravel kolegiolizeoan, aldi berean.

Aurreko urteko esperientzia ebaluatzeko bilera bat egin zen aurrena, parte-hartzaile guztiekin: ikastetxeen arteko harremana urtean zehar estutu beharra zegoela erabaki zuten, batetik, eta Ingurumen Eguna urtean zehar egindako lanak aurkezteko aprobetxatuko zutela, bestetik.

Horrenbestez, mugaz alde bietako ikastetxeen artean ikasturtean zehar izandako trukeei amaiera emateko eguna izango zen hau. Mugaz gaindiko bikoteak osatu zituzten hamar ikastetxek, eta ingurumenari buruzko proiektu komun baten inguruan lan egiteko eta iritziak eta esperientziak trukatzeko bi egun izan zituzten aurreko ikasturtean.

Jardunaldira joandako 250 inguru ikaslek bi modutara aurkeztu zituzten beren lanak:

- ▶ Mugaz bi aldeetako bikoteek aurkezpenak egin zituzten Hendaiako Sokoburu ikastetxean.
- ▶ Arratsaldean erakusketa bat antolatu zuten Donibane Lohizuneko Ravel kolegiolizeoan, eta han ikusgai egon ziren eskola horretan bertan landutako beste ingurumen-proiektu batzuk ere.

Hala, hauek izan ziren mugaz gaindiko bikoteak osatu zituzten hamar ikastetxeak eta haiek landutako gaiak:

- ▶ **Baionako Saint Bernard** eta **Andoaingo La Salle Berrozpe** ikastetxeek etxeko hondakinen gaia landu zuten eta bisitak egin zituzten elkarrekin hondakinetara.
- ▶ **Hazparneko Elhuyar kolegioak** eta **Lezoko institutuak** urari buruzko lan bat egin zuten.



- ▶ **Baigorriko Jean Pujo kolegioak** eta **Tolosako Hirukide-Eskolapioak** ikastetxeak zohikaiztegiak aztertu zituzten eta GPS sistemarekin lokalizatzen ikasi zuten.
- ▶ **Donibane Lohizuneko Ravel kolegioak** eta **Irungo San Bizente Paulkoa ikastetxeak** "Azter Kosta" proiektua garatu zuten, itsasertzeko zati batzuk alderatuz.
- ▶ **Hendaiako Jesusen Bihotza** eta **Errenteriako Koldo Mitxelena ikastetxeak** elkarlanean aritu ziren itsasertzeko ekosistemari buruzko proiektu batean.

Bazkariaren eta bazkal osteko ikuskizunaren ondoren, jardunaldiari amaiera emateko sagarrondo bat landatu zuten Ravel kolegioko lorategietan, jardunaldiaren oroigarri gisa eta parte-hartzaile guztiek ingurumenarekin duten kez karen sinbolo gisa.



2008

Euskal Eurohiriko Ingurumenaren III. Eguna



Euskal Eurohiriko Ingurumenaren III. Eguna ospatu zen 2008ko maiatzaren 15ean, Andoaingo La Salle Berrozpe ikastetxean, 340 lagunen partaidetzarekin. Ura izan zen langaia, auzi horrek oihartzun handia hartu baitzuen Zaragozako Erakusketa Unibertsalaren ondorioz. Hori dela eta, Egunaren laburpen grafikoa bidali zitzaien erakusketaren antolatzaileei, eta laburpen hori pantaila erraldoi batean erakutsi zuten Euskadiren egunean, beste hezkuntza-proiektu batzuekin batera.

Goizekoari Bastero kultur gunean ekin zitzaion, Eguna inauguratu ondoren. Hauek izan ziren inaugurazio ekitaldian: Antonio Perez (Andoaingo alkatea), Jose Luis Velez (ingurumeneko zinegotzia), Jon Yanez (La Salle Berrozpe ikastetxeko zuzendaria) eta Agustin Arostegi (Euskal Eurohiriaren Garapenerako Mugaz gaindiko Agentziako zuzendari-kidea).

Jardueretarako ikastetxe-bikote hauek antolatu ziren:

- Ursuya (Asparren) – R. M. Zuazola-Larraña institutua (Oñati)
- Saint Bernard (Baiona) – Koldo Mitxelena (Errenteria)
- Irandatz, lehen taldea (Hendaia) – La Salle (Irun)
- Irandatz, bigarren taldea (Hendaia) – La Salle Berrozpe (Andoain)
- Albert Camus (Baiona) – La Anunciata (Donostia)

Bazkaria herriko frontoi estalian egin zen, jende ugariarekin. Arratsaldean, ikastetxe anfitrioiak bere gelak eta jolastokia zabaldu zituen hiruna tailerreko hiru zirkuitu aldi berean antolatzeko. Gazteak zirkuitu batetik bestera ibili ziren.

Egunari amaiera emateko, sagarrondo bat landatu zuten ikastetxe anfitrioiaren instalazioetan, ohikoa den bezala.



2009

Euskal Eurohiriko Ingurumenaren IV. Eguna

Ingurumen egunaren edizio hau maiatzaren 6an Baionan ospatu zen, Aldaketa Klimatikoaren gaiaren inguruan eta 182 gazteen partaidetzarekin.

Ikasturtearen zehar lana egin zuten bikoteak hurrengoak izan ziren:

- Baionako Saint Bernard - Errenteriako Koldo Mitxelena
- Donibane Lohitzuneko Sainte Marie - Donostiako La Anunciata
- Donapaleuko Etchecopar - Errenteriako Koldo Mitxelena
- Baionako Albert Camus - Andoaingo - La Salle Berrozpe
- Bidaxuneko ikastetxea - Oñatiko institutua

Proiektuak Aldaketa Klimatikoarekin erlazionatutako ekintza praktikoak izan behar ziren. Hala izanda, Michel Veunac eta Agustín Arostegiren CLIMA plana eta CO₂ isurketen murrizketei buruzko hitzak entzun ondoren, Elkarteen Etxean ikasleek berotasun globalean kaleetako argiztapenak duen eragina, aldizkako energiak, eraikuntza bioklimatikoa eta basoak sarbegi gisa, hitzaldiak entzun ziren power pointen laguntzaz.



Gero, Baionako Saint Bernard ikastetxeko ostalari paregabea izanez, bertako jangelan bazkadu zuten guztiok.

Arratsaldean, eta aurreko ikasturtearen ebaluaketa bileran irakasleek proposatutakoari jarraituz, bi ekintza-zirkuituak antolatu ziren: bat erabat artistikoa non ikasleek aldaketa klimatikoa margotzen zuten eta basoaren soinua deskubrituz txalaparta jotzen ikasi zuten, eta bestea tratatutako gaiaren inguruko hainbat mezu emateko aprobeixatu egin ziren euskal jokoak.

Ondo pasa zuten, lagun berriak egin zituzten, eta hori dena egun eguzkitsuan; eta urtero bezala Saint Bernardeko lorategian ekimenaren oroimena gelditu da, zuhaitz bat. Gazteek eraman zuten oroigarria beraien eskolari zegokion kolore identifikatzailearen Gazteen Kongresuko logotipoa zuen zapitxo da.



EBALUAZIOA:

	Aspectos a evaluar / Aspects à évaluer	0	1	2	3	4
LA ORGANIZACION / L'ORGANISATION						
A	Reunión en Plaiaundi para la organización del curso Réunion à Plaiaundi pour l'organisation du cours			1	1	2
B	Fichas de seguimiento Fiches de suivi			1	2	3
C	Atención recibida por los organizadores Attention reçue de la part des organisateurs				2	4
D	Apoyo ofrecido por las empresas dinamizadoras Aide reçue de la part des associations animatrices				3	3
E	Fechas y plazos Dates et délais			2	1	3
LOS ASPECTOS HUMANOS / LES ASPECTS HUMAINS						
F	Relación con los profesores de su binomio Relations avec les professeurs de votre binôme				2	4
G	Relación entre los alumnos/as Relations entre les élèves		1	1	3	2
LAS SALIDAS / LES SORTIES						
H	Organización de la salida organizada por su centro Organisation de la sortie organisée par votre centre					5
I	Organización de la salida organizada por su binomio Organisation de la sortie organisée par votre binôme				2	4
J	Adecuación de la salida organizada por su binomio al cambio climático / Adecuation de la sortie organisée par votre binôme avec le changement climatique		1	1		4
EL CONGRESO DEL 6 DE MAYO / LE CONGRES DU 6 MAI						
K	Organización del congreso Organisation du congrès			1	1	3
L	El interés del congreso (la mañana) L'intérêt du congrès (le matin)			1	2	2
M	La comida / Le repas			2	1	2
N	Logística (buses, materiales, etc.) Logistique (bus, matériel, etc.)					5
O	Taller de pintura / Atelier de peinture			1	1	3
P	Taller de txalaparta / Atelier de txalaparta			2	1	2
Q	Taller herri kirolak / Atelier herri kirolak			1	1	5
R	El interés del congreso (la tarde) L'intérêt du congrès (l'après-midi)			2		3
S	EL PROYECTO EN GENERAL / LE PROJET EN GENERAL				2	4

Muy mal- 0 / Mal- 1 / Regular- 2 / Bien-3 / Muy Bien- 4
Mauvais – 0 / Pas très bien – 1 / Correct – 2 / Bien – 3 / Très bien - 4